**NIK, JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO JAUNAK, GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURUA ETA EUSKO JAURLARITZAREN IDAZKARIAK**

**JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO, CONSEJERO DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO Y SECRETARIO DE GOBIERNO**

**EGIAZTATZEN DUT:**

**CERTIFICO:**

Eusko Jaurlaritzak, 2018ko ekainaren 19an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Que el Gobierno Vasco, en sesión celebrada el día 19 de junio de 2018 adoptó, entre otros, el siguiente Acuerdo:

**ERABAKI-PROPOSAMENA, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN BAITIRA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAK TRATATUTAKO DATU PERTSONALEN BABESERAKO EGITURAKETA ETA ROLEN ESLEIPENA.** (ESP.: 2018/00501) (A/20180133)

**PROPUESTA DE ACUERDO POR EL QUE SE APRUEBA LA ESTRUCTURA ORGANIZATIVA Y ASIGNACIÓN DE ROLES PARA LA PROTECCIÓN DE LOS DATOS PERSONALES TRATADOS POR LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI.** (EXP. 2018/00501) (A/20180133)

Datu pertsonalen tratamendu automatizatuaren aurrean pertsonak fisikoak babesteko Europako Kontseiluaren 108. zenbakiko hitzarmena sinatu eta berrestean eta, ondoren, urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoa (datu pertsonalen tratamendu automatizatuari buruzkoa) onartzean zehaztu eta garatu zen datu pertsonalen tratamenduaren aurrean pertsona fisikoak babesteko oinarrizko eskubidea, lege-mailan.

La concreción y desarrollo del derecho fundamental de protección de las personas físicas en relación con el tratamiento de datos personales, a nivel legislativo tuvo su origen con la firma y ratificación del Convenio nº 108 del Consejo de Europa para la protección de las personas con respecto al tratamiento automatizado de datos de carácter personal y la posterior aprobación de la Ley Orgánica 5/1992, de 29 de octubre, reguladora del Tratamiento Automatizado de Datos de Carácter Personal (LORTAD).

Nahi izanez gero, J0D0Z-T1863-VJW9 bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: http://euskadi.eus/lokalizatzailea
La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T1863-VJW9 en la sede electronica http://euskadi.eus/localizador

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tel. 945 01 80 18 – Fax 945 01 87 01

Lege organiko horren ordez Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 5eko 15/1999 Lege Organikoa (DBLO) jarri zen indarrean, gure antolamendu juridikoan txertatzeko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1995eko urriaren 24ko 95/46/EE Zuzentarauak, pertsona fisikoen datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari babesari buruzkoak, ezartzen duena.

Dicha Ley Orgánica fue reemplazada por la Ley Orgánica 15/1999, de 5 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal (LOPD), a fin de trasponer a nuestro ordenamiento jurídico la Directiva 95/46/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 24 de octubre de 1995, relativa a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduak (EB), datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoak (DBEO), indarrik gabe utzi zuen aipatu 95/46/EE Zuzentaraua. Hala, nahitaezko esparru juridiko berri bat ezarri zuen. Haren aplikazio-eremua Europar Batasuneko estatu-kide guztietara hedatzen da, eta berariaz baldintzatzen du administrazio publiko guztien jarduera, eta, ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioa bera. DBEO zuzenean aplikatzen da 2018ko maiatzaren 25az geroztik.

El Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de sus datos personales y a la libre circulación de estos datos (RGPD), deroga la citada Directiva 95/46/CE, estableciendo un nuevo marco jurídico obligatorio cuyo ámbito de aplicación se extiende a todos los países miembros de la Unión Europea y que condiciona la actividad de todas las Administraciones Públicas, y por tanto a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi. EL RGPD es de directa aplicación desde el 25 de mayo de 2018.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan, Gobernu Kontseiluaren 2002ko uztailaren 16ko erabakiak DBLO ezartzen lagundu zuen, eginkizunak antolatu eta banatzeko proposamen bat gauzatzean. Hala ere, kontuan hartuta DBEO berriaren inplikazioak, beharrezkoa da araudi horretara egokitzea, eta, horretarako, eginkizunak antolatu eta banatzeko eredua eguneratu behar da, Erregelamendu horrek planteatzen dituen eskakizun berriak ezarri ahal izateko.

En la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi el Acuerdo de Consejo de Gobierno, de 16 de julio de 2002, facilitó la implantación de la LOPD, realizando una propuesta organizativa y de distribución de funciones. Sin embargo, dadas las implicaciones del nuevo RGPD, resulta necesario adaptarse a dicha normativa, llevando a cabo una actualización del modelo organizativo y de distribución de funciones, para poder adoptar las nuevas exigencias planteadas por dicho Reglamento.

Egokitzapen-lan hori dagoeneko martxan dago, partzialki, maiatzaren 22ko 81/2018 Dekretuaren bidez (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko den Dekretua aldatzeko dena, EHAA, 99. zk.). Bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren datuak babesteko ordezkariaren profila zehazten da, Sail horretako Araubide Juridikoaren Sailburuordetzara atxikitako figura gisa, bere egitura hierarkikoan sartu gabe, bere eginkizunak autonomia hierarkiko eta funtzional osoz betez. Eginkizun horien artean, berariaz koordinatu eta babesten dira Euskal Autonomia Erkidegoko sailek, erakunde autonomoek eta zuzenbide

Este ejercicio de adaptación ya ha sido en parte llevado a cabo a través del Decreto 81/2018, de 22 de mayo, de modificación del Decreto por el que se establece la estructura y funcional del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno (B.O.P.V nº99), que determina el perfil del Delegado o Delegada de protección de datos de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, como una figura adscrita a la Viceconsejería de Régimen Jurídico de dicho Departamento, sin integrarse en su estructura jerárquica, que ejerce sus funciones con plena autonomía jerárquica y funcional y que entre cuyas funciones está la coordinación y apoyo a los órganos responsables del sistema de

pribatuko erakunde publikoek izendatutako informazio publikoaren sistemaren organo arduradunak.

Horrenbestez, eskakizun horiei guztiei erantzun egokia emateko, eginkizunak antolatu eta banatzeko proposamen berri bat aurreikusi da erabaki honetan, beharrezkoa baita eraginkortasunez antolatu dadin Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak tratatutako datu pertsonalen babesa, bai eta sail, erakunde autonomo eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoek datuak babesteko ordezkariarekin dituzten harremanak ere. Horretarako, eskatutako pribatutasun-rol desberdinak ezartzen dira, bai eta beharrezko koordinazio-organoak ere, hura era egokian kudeatu dadin, datu pertsonalen pribatutasuna modu aproposean kudeatzeko beharrezko organoak formalki ezartze aldera.

Azaldutakoaren ondorioz, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren proposamenez, eta eztabaidatu beharrekoak eztabaidatu ostean, Gobernu Kontseiluak honako erabaki hau hartu du:

**ERABAKIA:**

«Lehena.- Oso-osorik onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak tratatutako datu pertsonalen babeserako egituraketa eta rolen esleipena onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren erabakia, erabaki honen eranskinean jasotakoa.

Bigarrena.- Erabaki hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sail guztiei jakinaraziko zaie, bai eta haren erakunde autonomoei eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoei ere, eta inplikatuta egon daitezkeen pertsonen artean ahalik eta gehien zabaltzeko eskatuko zaie».

**ERABAKIAREN ERANSKINA:**

información pública designados por los departamentos, los organismos autónomos y los entes públicos de derecho privado de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Por ello, para dar una adecuada respuesta a todas estas exigencias, el presente Acuerdo contempla la nueva propuesta organizativa y de distribución de funciones, necesaria para articular de manera eficaz la protección de los datos personales tratados por la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y las relaciones de los Departamentos, Organismos Autónomos y Entes Públicos de Derecho Privado con el Delegado o Delegada de protección de datos, estableciendo los diferentes roles de privacidad requeridos, y los órganos de coordinación necesarios para una apropiada gestión de la misma, con el fin de dotarse formalmente de los órganos necesarios para gestionar adecuadamente la privacidad de los datos personales.

Por lo expuesto, a propuesta del Consejero de Gobernanza Pública y Autogobierno, previa deliberación, el Consejo de Gobierno adopta el siguiente

**ACUERDO:**

«Primero.- Aprobar, en todos sus términos, el Acuerdo de Consejo de Gobierno por el que se aprueba la estructura organizativa y asignación de roles para la protección de los datos personales tratados por la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi recogida en el Anexo de este Acuerdo.

Segundo.- El presente Acuerdo se comunicará a todos los Departamentos de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, así como a sus Organismos Autónomos y Entes Públicos de Derecho Privado, requiriendo su mayor difusión entre las personas que pudieran verse implicadas».

**ANEXO AL ACUERDO:**

## ALDERDI OROKORRAK

### 1. Xedea

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak tratatutako datu pertsonalak babesteko beharrezko egituraketa ezartzea da erabaki honen xedea. Horretarako, dagozkion pribatutasun-rolak zehaztu eta esleituko ditu.

### 2. Aplikazio-eremua

Erabaki honek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko sail guztiei, haren erakunde autonomoei eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoei eragingo die.

### 3. Printzipio orokorrak

1. Administrazio Elektronikoan parte hartzen duten Eusko Jaurlaritzako sailek, erakunde autonomoek eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoek hari lotutako segurtasun-rolak antolatu beharko dituzte, erabaki honetan ezarritakoaren arabera. Era berean, testu honetan xedatutakoari jarraikiz zehaztutako koordinazio-foroetan parte hartu beharko dute.

2. Erabaki honetan zehaztutako eginkizunak antolatzean, bateragarritasuna eta koordinazioa bermatu beharko dira, ahal den neurrian, Administrazio Elektronikoan segurtasuna kudeatzeko dauden erantzukizun eta rolen antolaketarekin eta urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretua (Segurtasunerako Eskema Nazionala Administrazio Elektronikoaren eremuan arautzen duena) betetzearekin.

## ASPECTOS GENERALES

### 1. Objeto

El presente Acuerdo tiene por objeto establecer la estructura organizativa necesaria para llevar a cabo la protección de los datos personales tratados por la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi mediante la definición y asignación de los roles de privacidad correspondientes.

### 2. Ámbito de aplicación

Este acuerdo afectará a todos los Departamentos de la Administración Publica de la Comunidad Autónoma de Euskadi, sus Organismos Autónomos y Entes Públicos de Derecho Privado.

### 3. Principios generales

1. Los Departamentos, Organismos Autónomos y Entes Públicos de Derecho Privado del Gobierno Vasco que participen en la Administración Electrónica deberán articular los roles de seguridad asociados a ella en consonancia con lo establecido en el presente Acuerdo. Así mismo, deberán participar en los foros de coordinación definidos de acuerdo a lo estipulado en el presente texto.

2. La articulación de las funciones definidas en el presente Acuerdo deberá ser compatible y estar coordinada, en la medida de lo posible, con la articulación de roles y responsabilidades existente en relación a la gestión de la seguridad en la Administración Electrónica y el cumplimiento del Real Decreto 3/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad en el ámbito de la Administración Electrónica.

## ROLAK ESLEITZEA

### 4. Tratamenduaren arduraduna

1. Sektoreko zuzendaritza-organo bakoitzak garatutako datu pertsonalak tratatzeko arduradunaren rola saileko organo egokiaren edo erakunde autonomo edo zuzenbide pribatuko erakunde publiko bakoitzeko pertsona bakarreko gobernu-organo egokiaren titularrak beteko du.

2. Halaber, datuak babesteko arloan aplikatu behar zaien legediak ezartzen dizkien eginkizun eta eskumenez gain, honako berariazko eginkizun hauek bete behar dituzte:

a. Kudeatzen dituzten datu pertsonalen tratamenduaren gainean indarrean den araudia eta DBEO benetan betetzen direla zaintzea.
b. Beren eskumenen eremuan datuak tratatzeko jardueren erregistroa mantendu eta eguneratzea.
c. Datuak babesteko ordezkariari jakinaraztea beren jarduera-eremuaren barruan kudeatzen dituzten datu-tratamenduen jardueraren erregistroa, bai eta horietan egondako aldaketak ere.
d. Datuak babesteko ordezkariak beren jarduera-eremuan kudeatzen dituen datuen tratamenduekin lotuta bidaltzen dizkien errekerimenduei erantzutea.
e. Beharrezko segurtasun- eta pribatutasun-neurri tekniko eta antolakuntzakoak ezarri eta aplikatzea, kudeatzen dituzten tratamenduetan datu pertsonalak babesteko.
f. Kudeatzen dituzten tratamenduekin lotuta datu pertsonalak babestearen arloan araudiak ezartzen dituen isilpekotasunaren eta konfidentzialtasunaren betebeharrak betetzen direla bermatzea.

## DESIGNACIÓN DE ROLES

### 4. Responsable del tratamiento

1. El rol de Responsable del tratamiento de datos personales desarrollados por cada órgano directivo sectorial lo ejerce la persona titular del respectivo órgano del Departamento, o del órgano unipersonal de gobierno correspondiente a cada Organismo Autónomo o Ente Público de Derecho Privado.

2. Ejercen, además de las funciones y competencias que les atribuya la legislación aplicable en materia de protección de datos, las siguientes funciones específicas:

a. Velar por el efectivo cumplimiento del RGPD y la normativa vigente en el tratamiento de datos personales que gestiona.
b. Mantener y actualizar el registro de las actividades de tratamiento de datos en el ámbito de sus competencias.
c. Notificar al Delegado o Delegada de protección de datos el registro de actividades de tratamiento de datos, así como las modificaciones de los mismos, que gestiona en su ámbito de actuación.
d. Responder a los requerimientos que le envíe el Delegado o Delegada de protección de datos en relación con los tratamientos de datos que gestiona en su ámbito de actuación.
e. Establecer y aplicar las medidas técnicas y organizativas de privacidad y seguridad necesarias para la protección de los datos personales en los tratamientos que gestiona.
f. Garantizar el cumplimiento de las obligaciones de secreto y confidencialidad derivadas de la normativa en materia de protección de datos personales en relación con los tratamientos que gestiona.

g. Datu pertsonalak jasotzean informazioa era egokian eta gardentasun-printzipioari jarraikiz emateko betebeharra betetzen dela bermatzea.
h. Interesdunen eskubideak errespetatu eta betebeharrak betetzea, DBEOn eta indarreko araudian aurreikusitakoaren arabera.
i. Datuak babesteko orduan egondako eraginaren gaineko ebaluazioak egitea, datuak babesteko ordezkariaren aholkularitza pean, baldin eta datuak tratatzean arrisku altua eragingo bada pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetan. Eragina ebaluatzean egiaztatuko balitz tratamenduak arrisku altua eragingo duela, kontrol-agintaritza kontsultatu beharko litzateke.
j. Segurtasuna urratu denean, nahitaezko jakinarazpenak egitea Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, pertsona interesdunei eta datuak babesteko ordezkariari.

g. Garantizar el cumplimiento de la obligación de informar adecuadamente y aplicando el principio de transparencia en la recogida de los datos personales.
h. Cumplir todas aquellas obligaciones y respetar los derechos de las personas interesadas, de acuerdo con lo previsto en el RGPD y la normativa vigente.
i. Realizar las pertinentes evaluaciones de impacto en la protección de datos asesorado por el Delegado o Delegada de protección de datos, cuando el tratamiento de datos a llevar a cabo entrañe alto riesgo para los derechos y libertades de las personas físicas. Si la evaluación de impacto mostrara que el tratamiento entraña alto riesgo deberá consultar a la autoridad de control.
j. Realizar en su caso, las preceptivas notificaciones de violaciones de seguridad a la Agencia Vasca de Protección de Datos, a las personas interesadas y al Delegado o Delegada de protección de datos.

## 5. Tratamendu-eragilea

1. Tratamendu-eragileak datu pertsonalen gainean gauzatu beharreko tratamendua kontratu batek edo indarreko araudiaren araberako beste egintza juridiko batek arautuko du, zeinak eragilea tratamenduaren arduradunarekin lotuko baitu eta tratamenduaren gaia, iraupena, nolakotasuna eta helburua, eta datu pertsonalen izaera eta interesdun-kategoriak eta arduradunaren betebeharrak eta eskubideak ezarriko baititu.

2. Tratamenduaren arduradunak kontratu horretan zehazten diren eginkizunak eta eskumenak beteko ditu, hau da, gutxienez DBEOren 28. artikuluan eta datuak babestearen gainean indarrean den araudian aurreikusten direnak.

3. Jakiten dituen segurtasunaren urraketak jakinaraziko dizkio tratamendu-eragileak arduradunari, atzerapen bidegaberik gabe.

## 5. Encargado de tratamiento

1. El tratamiento de los datos personales por el Encargado de tratamiento se regirá por un contrato u otro acto jurídico en virtud de lo establecido en la normativa en vigor, que vincule al Encargado respecto del Responsable del tratamiento, y establezca el objeto, la duración, la naturaleza y finalidad del tratamiento, el tipo de datos personales y categorías de interesados, y las obligaciones y derechos del responsable.

2. El Encargado de tratamiento ejercerá las funciones y competencias que se determinen en dicho contrato que como mínimo tendrá las previstas en el artículo 28 del RGPD y la normativa en vigor en materia de protección de datos.

3. El Encargado de tratamiento notificará sin dilación indebida al Responsable de tratamiento las violaciones de seguridad de las que tenga conocimiento.

## 6. Pribatutasun-neurrien arduradunak

1. Administrazio Orokorreko sail bakoitzeko pribatutasun-neurrien arduradunaren rola dagokion saileko zerbitzu-zuzendaritzaren edo organo parekidearen titularrak beteko du. Erakunde autonomoetan edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan, pribatutasun-neurrien arduradunaren rola erakunde autonomo edo zuzenbide pribatuko erakunde publiko bakoitzeko pertsona bakarreko gobernu-organoaren titularrak edo bere erakundearen barruan izendatzen den pertsonak betetzen du.

2. Halaber, datuak babesteko arloan aplikatu behar zaien legediak ezartzen dizkien eginkizun eta eskumenez gain, honako berariazko eginkizun hauek bete behar dituzte:

a. Beren sailak, erakunde autonomoak edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoak egindako datu pertsonalen tratamenduetan aplikatu behar diren segurtasun- eta pribatutasun-neurriak martxan jartzeko lanak koordinatu eta antolatzea, Eusko Jaurlaritzako segurtasuneko arduradunarekin lankidetzan, beharrezkoa den aldiro.
b. Datu pertsonalak kudeatzean tratamenduaren arduradunari beharrezko laguntza teknikoa eta antolakuntzakoa ematea.
c. Beren sailak, erakunde autonomoak edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoak egindako datu pertsonalen tratamenduetan egon daitezkeen arriskuak aztertu eta eraginak ebaluatzeko lanak koordinatzea, Eusko Jaurlaritzako sistema eta segurtasuneko arduradunarekin lankidetzan, beharrezkoa den aldiro. Era berean, tratamendu bakoitzerako beharrezko segurtasun-neurriak ezartzeko lanak koordinatzeaz arduratuko dira, egindako azterketen emaitza kontuan hartuta.

## 6. Responsables de las medidas de privacidad

1.El rol de Responsable de las medidas de privacidad de cada Departamento de la Administración General lo ejerce la persona titular de la Dirección de Servicios u órgano equivalente del Departamento respectivo. En los Organismos Autónomos o Entes Públicos de Derecho Privado, el rol de Responsable de las medidas de privacidad lo ejerce la persona titular del órgano unipersonal de gobierno correspondiente a cada Organismo Autónomo o Ente Público de Derecho Privado o persona que designe dentro de su organización.

2.Ejercen, además de las funciones y competencias que les atribuya la legislación aplicable en materia de protección de datos, las siguientes funciones específicas:

a. Coordinar y articular la puesta en marcha de las medidas de seguridad y privacidad aplicables a los tratamientos de datos personales realizados por su Departamento, Organismo Autónomo o Ente Público de Derecho Privado, en coordinación con el Responsable de la seguridad del Gobierno Vasco siempre que sea necesario.
b. Prestar la asistencia técnica y organizativa necesaria al Responsable del tratamiento en la gestión de los datos personales.
c. Coordinar la realización de los análisis de riesgos y evaluaciones de impacto sobre los tratamientos realizados por su Departamento, Organismo Autónomo o Ente Público de Derecho Privado, en coordinación con el Responsable de la seguridad y de los sistemas del Gobierno Vasco siempre que sea necesario. Asimismo, será el responsable de coordinar la implantación de las medidas de seguridad necesarias para cada tratamiento, a la vista del resultado de los análisis realizados.

d. Beren saileko, erakunde autonomoko edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoko datuak babesteko erreferenteen kargua betetzen duten pertsonei edo, zuzenean, datuak babesteko ordezkariari informazio egokia ematea, baldin eta beren jarduera-eremuan datuak babeste aldera esanguratsua izan daitekeen jarduera zehatzik badago.
e. Tratamenduaren arduradunari laguntza ematea, datuak babesteko ordezkariak beren eskumen-eremuan datuen tratamenduak egiaztatzeko jarduerak egiten baditu.

3. Korporazioaren Segurtasun eta Pribatutasun Batzordean parte hartzen dute, eta beren zuzendaritza, erakunde autonomo edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoko pertsona (edo pertsonak) izendatzen dute, datuak babesteko erreferentearen eginkizunak bete ditzan.

d. Informar a quienes ejerzan el cargo de Referentes de protección de datos de su Departamento, Organismo Autónomo o Ente Público de Derecho Privado, o directamente al Delegado o Delegada de protección de datos, en el supuesto de que haya alguna actuación concreta que pueda ser relevante a efectos de protección de datos en su ámbito de actuación
e. Asistir al Responsable del tratamiento en el caso de que el Delegado o Delegada de protección de datos realice actividades de verificación de los tratamientos de datos en el ámbito de su competencia.

3. Participan en el Comité de Seguridad y Privacidad Corporativa y designan a la persona o personas de su Dirección, Organismo Autónomo o Ente Público de Derecho Privado que ejerzan las funciones de Referente de protección de datos.

### 7. Datuak babesteko erreferenteak

1. Sail, erakunde autonomo edo zuzenbide pribatuko erakunde publiko bakoitzeko pribatutasun-neurrien arduradunak formalki izendatu beharko ditu bere karguko pertsona bat edo hainbat, bere antolakuntza-eremuaren barruan, datuak babesteko erreferentearen eginkizunak bete ditzaten. Izendapen hori hilabeteko epean egin beharko da, erabaki hau onartzen denetik aurrera, eta datuak babesteko ordezkariari jakinarazi beharko zaio.

2. Datuak babesteko erreferenteen kargua betetzen duten pertsonak arduratu beharko dira datuak babesteko ordezkariari laguntzeaz, dagokien sail, erakunde autonomo edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren jarduera-eremuan.

3. Sail, erakunde autonomo edo zuzenbide pribatuko erakunde publiko bakoitzeko datuak babesteko erreferenteen kargua betetzen

### 7. Referentes de protección de datos

1. Quien sea responsable de las medidas de privacidad de cada Departamento, Organismo Autónomo o Ente Público de Derecho Privado deberá nombrar formalmente a una o varias personas a su cargo, dentro del ámbito de su organización, que desarrollen las funciones de Referente de protección de datos. Este nombramiento deberá efectuarse en el plazo de un mes a partir de la aprobación del presente Acuerdo, y notificarse al Delegado o Delegada de protección de datos.

2. La labor de las personas que ejerzan el cargo de Referentes de protección de datos será la de asistir al Delegado o Delegada de protección de datos en el ámbito de la actividad de su Departamento, Organismo Autónomo o Ente Público de Derecho Privado al que pertenezcan.

3. Las funciones de quienes ejerzan el cargo de Referentes de protección de datos de cada Departamento, Organismo Autónomo o

duten pertsonen eginkizunak honako hauek izango dira:

a. Zerbitzuak ematen diren sailean, erakunde autonomoan edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoan DBEO eta hura garatzen duen araudia betetzeko lanak koordinatu eta artatzea, eta datuak babesteko ordezkariari antzemandako edozein disfuntzioren berri ematea.
b. Bere sail, erakunde autonomo edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoan egiten diren datu-tratamenduen jarraipena egitea, eta, horren barruan, tratamendu horiek tratamenduen erregistroarekin alderatzea eta datuak babesteko ordezkariari horren berri ematea.
c. Datuak babesteko ordezkariak dei egiten dion koordinazio-bileretara joatea, eta datuak babesteko ordezkariak eskatzen dizkion agiriak edo datuak horietan aurkeztea.
d. Datuak babesteko ordezkariari laguntzea eskatzen diren zeregin guztiak betetzeko orduan.

Ente Público de Derecho Privado serán las siguientes:

a. Coordinar y atender en el Departamento, Organismo Autónomo o Ente Público de Derecho Privado en el que presta sus servicios el cumplimiento del RGPD y normativa de desarrollo dando cuenta al Delegado o Delegada de protección de datos de cualquier disfunción detectada.
b. Hacer el seguimiento de los tratamientos de datos que se realizan en su Departamento, Organismo Autónomo o Ente Público de Derecho Privado, cotejando los mismos con el registro de tratamientos y dando cuenta de ello al Delegado o Delegada de protección de datos.
c. Acudir a las reuniones de coordinación a las que sea citado por el Delegado o Delegada de protección de datos, debiendo aportar a las mismas la documentación o información que el Delegado o Delegada de protección de datos le solicite.
d. Prestar su colaboración al Delegado o Delegada de protección de datos en todas las tareas que encomiende.

## KOORDINAZIO-ORGANOAK

### 8. Korporazioaren Segurtasun eta Pribatutasun Batzordea

1. "Eusko Jaurlaritzako administrazio elektronikorako egituraketa eta rolen esleipena onartzen dituen erabakiko" «Korporazioaren Segurtasun Batzordea» izeneko kide anitzeko organoa aldatzea, «Korporazioaren Segurtasun eta Pribatutasun Batzordea» dei dadin, eta horrez gain, tratamenduen arduradunak zuzendu eta koordinatzeko eginkizuna bere gain hartzea.

## ÓRGANOS DE COORDINACIÓN

### 8. Comité de seguridad y privacidad corporativa

1. Se modifica el órgano colegiado denominado «Comité de Seguridad Corporativa» del "Acuerdo por la que se aprueba la estructura organizativa y asignación de roles de seguridad para la administración electrónica del Gobierno Vasco", que pasará a denominarse «Comité de seguridad y privacidad corporativa» y a asumir adicionalmente la función de dirigir y coordinar, en última instancia, a los Responsables de los tratamientos.

2. Korporazioaren Segurtasun eta Pribatutasun Batzordea honako pertsona hauek osatuko dute:

a. Segurtasunaren eta sistemen arduraduna, batzorde-burua izango dena.
b. Zerbitzu komunen arduradunak.
c. Pribatutasun-neurrien eta informazioaren arduradunak.
d. Sistemen ustiapenaren arduraduna.
e. Datuak babesteko ordezkaria.

3. Aipatu erabakiko 9-c) 2 puntua aldatu da, eta honela geratu da: Egon daitezkeen arriskuen aurrean segurtasun-maila bermatzeko neurri tekniko eta antolakuntzakoak aztertu, zuzendu eta onartzea, eta, horren barruan, berariaz haztatzea teknikaren egoera, aplikazioaren kostuak, garapenaren testuingurua, tratamenduaren xedeak eta pertsona fisikoen askatasun eta eskubideetan izan dezakeen eragina.

4. Korporazioaren Segurtasun eta Pribatutasun Batzordeak gutxienez urtean behin egingo du bilera, baita buruak beharrezkotzat jotzen duen aldi guztietan ere.

## 9. Datuak Babesteko Batzordea

1. Datuak Babesteko Batzordea sortu da, datuak babesteko ordezkariaren eta datuak babesteko erreferenteen kargua duten pertsonen jarduera koordinatzeko.

2. Datuak Babesteko Batzordearen parte izango dira: datuak babesteko ordezkaria, bera izango delarik batzorde-burua; eta sail, erakunde autonomo eta zuzenbide pribatuko erakunde publiko desberdinetan datuak babesteko erreferenteen funtzioak betetzen dituztenak.

2. El Comité de seguridad y privacidad corporativa quedará compuesto por las siguientes personas:

a. La persona responsable de la seguridad y de los sistemas, que lo presidirá.
b. Quienes sean responsables de los servicios comunes.
c. Los y las responsables de la información y de las medidas de privacidad.
d. La persona responsable de la explotación de los sistemas
e. El Delegado o Delegada de protección de datos.

3. Se modifica el punto 9-c) 2 del citado Acuerdo que queda redactado de la siguiente manera: Revisar, corregir, aprobar las medidas técnicas y organizativas apropiadas para garantizar un nivel de seguridad adecuado a los posibles riesgos, ponderando el estado de la técnica, los costes de aplicación, el contexto de su desarrollo, los fines del tratamiento y su posible afectación para los derechos y libertades de las personas físicas.

4. El Comité de seguridad y privacidad corporativa se reunirá como mínimo una vez al año, así como en todas aquellas ocasiones en que su Presidente o Presidenta lo considere necesario.

## 9. Comité de protección de datos

1. Se crea el Comité de protección de datos con la finalidad de coordinar la actividad del Delegado o Delegada de protección de datos y de las personas que ejerzan el cargo de Referentes de protección de datos.

2. Formarán parte del Comité de protección de datos, el Delegado o Delegada de protección de datos, que lo presidirá, y quienes ejerzan las funciones de Referentes de protección de datos de los diferentes Departamentos, Organismos Autónomos o Entes Públicos de Derecho Privado.

3. Datuak babesteko ordezkariak eskatuta deituko da Datuak Babesteko Batzordea, egokitzat jotzen duenean, eta, nolanahi ere, urtean gutxienez behin.

4. Datuak Babesteko Batzordearen eginkizunak honako hauek izango dira:

a. Datuak babesteko ordezkariarekin koordinazioan aritzea, datuak babesteko politiketan eta horien aplikazioan.
b. Datuak babesteko ordezkariaren jarraibideak jakinaraztea, pertsona erreferenteek beren jarduerak eraginkortasunez koordinatuta egin ditzaten.
c. Datuak Babesteko Batzordeko gainerako kideen aurrean azaltzea sail, erakunde autonomo edo zuzenbide pribatuko erakunde publiko bakoitzeko tratamenduaren arduradunek planteatu dituzten gaiak, doktrina bateratze aldera, baldin eta datuak babesteko ordezkariak hala eskatzen badu.
d. Datuak babestearen gainean sortu diren informazio esanguratsuak aztertzea.
e. Kontrol-erakundeek eta beste administrazio publiko batzuek datu pertsonalak babestearekin lotuta egin dituzten interpretazioak edo/eta azken aurrerapenak aztertzea.

Eta, horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau ematen dut, Vitoria-Gasteizen, 2018ko ekainaren 26an.

3. El Comité de protección de datos se convocará a petición del Delegado o Delegada de protección de datos cuando lo estime oportuno, y en todo caso, como mínimo una vez al año.

4. Las funciones del Comité de protección de datos serán las siguientes:

a. Coordinarse con el Delegado o Delegada de protección de datos en las políticas de protección de datos y su aplicación.
b. Comunicar las instrucciones del Delegado o Delegada de protección de datos para que las personas referentes puedan realizar sus actividades de manera coordinada eficaz y eficiente.
c. Exponer, ante los demás integrantes del Comité de protección de datos, cuestiones planteadas por las personas Responsables de tratamiento de cada Departamento, Organismo Autónomo o Ente Público de Derecho Privado, a los efectos de unificar doctrina, cuando sea solicitado por el Delegado o Delegada de protección de datos.
d. Analizar las informaciones relevantes que se hayan producido en materia de protección de datos.
e. Examinar los últimos avances y/o interpretaciones efectuadas por las instituciones de control y otras administraciones públicas en relación con la protección de datos personales.

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, expido la presente certificación en Vitoria-Gasteiz, a 26 de junio de 2018.